

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

366 zb.  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

>> 2022ko Apirila

## DEABRU JOKOAK

Afrikara bidaia bat irabazi nahi duzu?

1.-

18-30 urteko 3  
pertonako talde  
bat sortu

2.-

Txikitako jolasak  
entsaiatu eta gazte  
lehiaketan parte  
hartu

**GETXO**

**MAIATZAK 29**

11:00-12:30

**IZENA EMAN**

[www.googaz.eus](http://www.googaz.eus)

**+18**  
**urte**

**GOOGAZ**

## “Elsa” laburmetraia Gaztelekuan ZINEGOAKen eskutik

Ostirlean, hilak 22, Romoko Gaztelekuan, eta larunbatean, hilak 30, Algortako Gaztelekuan, *Elsa* izeneko laburmetraia proiektatuko da. Zinegoak-Gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiaren Getxoko hedapenean barruan dago, Naizen elkartearekin lankidetzan, maiatzaren 6an, Getxo Elkartegian, *Neska-mutilak* tailerra emango duena. Proiezioei dagokionez, ostirlean, hilak 22, Kimetz Renteria elkarte horretako kideak parte hartuko du. Bere testigantza emango du eta berarekin euskaraz hitz egin ahal izango da eta hilaren 30ean, larunbatean, berriz ere mintzatuko da, gaztelaniaz, Bea Sever elkarteko bozeramailearekin batera. Saioak, jatorrizko katalanezko bertsioan, euskarazko eta gaztelaniazko azpitu-luekin, bi kasuetan 18:30ean izango dira.

### Laburpena

Elsa 6 urteko neska bat da, bere adineko edonork bezala, zoriontsu eta aske bizi nahi duena. Badaki gehienak ez direla berdinak, baina adin txikikoa izan arren, gauzak argi ditu: badaki neska bat dela eta bere bizitzako erregina dela. Nork jar lezake zalantzan?



### Tailerra

Tailerra maiatzaren 6an, ostirala, 18:00etan, Getxo Elkartegian, Areetan, izango da. Naizen elkarteko kideek emango dute eta horren izena *Neska-mutilak* da. 5 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, euskaraz izango da, eta beharrezkoa da Areetako Eskoletako Plazan dagoen Ludotekan izena ematea. Ordutegia 17:00etatik 20:00etara izango da, astelehenetik larunbatera (izena emateko azken eguna maiatzaren 3a izango da). Plaza mugatuak. Telefonoak: 94 466 03 55 eta 688 81 28 86. Posta elektronikoa: [obilbao@getxo.eus](mailto:obilbao@getxo.eus)

## «Zirkotarrak», Getxoko gazteekin partekatutako sorkuntza artistikorako programa

Zirkua gustuko duzu eta Zirkozaurreekin batera sorkuntza artistikoko prozesu batean parte hartu nahi duzu? Getxon bizi bazara eta 16 eta 25 urte bitartean badituzu... hau da zure aukera! *Zirkotarrak* programa martxan dugu eta bertan parte hartzera gonbidatzen zaitugu. Animatu! Informazio gehiago: <https://labur.eus/td36U>

## BEKAK SARIAK

\* **Portugalete Uri Urena Komiki-Lehiaketa**, Portugaleteko Udalak deituta, euskaraz edo gaztelaraz. Sariak 100 eta 1.700€ artekoak dira. Lanak emateko epea: apirilak 30. Informazio gehiago: [santaclara@portugalete.org](mailto:santaclara@portugalete.org) eta [Oinarriak](mailto:Oinarriak).

\* **Botín Fundazioaren arte pastikoko bekak** B30 urtetik beherako artista plastikoentzat. Sorkuntza artistikoaren arloko prestakuntza, ikerketa edo proiektuak egiteko bekak dira. Iraupena: 9 hilabete. Zerbatekoa: 23.000€. Epea: 2022/09/06. Informazio gehiago: 942 22 60 72, [becas@fundacionbotin.org](mailto:becas@fundacionbotin.org) eta [Oinarriak](mailto:Oinarriak).

### Romoko Gaztelekuaren programazioa

#### Apirila

**Hilaren 29ra arte:** TAILERRA: IBILBIDE FEMINISTA  
**Hilak 8, ostirala:** EKINTZA: 4. URTEURRENA  
**Hilak 9, larunbata:** TXAPELKETA: PIN-PON  
**Hilak 13, asteazkena:** IRTEERA: ARKUAREKIN JAURTIKETA  
**Hilak 19, asteartea:** SUKALDARITZA: RAMEN  
**Hilak 22, ostirala:** TAILERRA: ZINEGOAK  
**Hilak 23, larunbata:** IRTEERA: BILBAO BOATS  
**Hilak 27, asteazkena:** EKINTZA: MASKARAK

### Algortako Gaztelekuaren programazioa

#### Apirila

**Hilak 8 eta 29, ostiralak:** PROIEKTUA: IBILBIDE FEMINISTA (BELDUR BARIK)  
**Hilak 9, larunbata:** IRTEERA: GUGGEHEIM MUSEOA  
**Hilak 13, asteazkena:** JOLASA: MULTIKIROLA  
**Hilak 16, larunbata:** MASTERCHEF: TAKOAK  
**Hilak 19, asteartea:** ESKULANA: ARROPA KOSTUMIZATU  
**Hilak 22, ostirala:** TAILERRA: SEXU-ANIZTASUNA  
**Hilak 30, larunbata:** TAILERRA: ZINEGOAK

## Bidaia Senegalera, “Googaz- Deabru Jokoak”en eskutik

Googaz, Euskadiko millennial inkonformistek sortutako mugimendua eta Euskadiko gazteak tokiko erronketan rol aktiboa izatera eta beren bizitzaren jabe izatera animatzen dituen, *Googaz- Deabru Jokoak* 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekimenaren laugarren ediziorako deialdia egin du. Hiru laguneko taldeetan parte hartu ahal izango dute eta aurtengo erronka soziala “emantzipazioa” izango da. Talde irabazleak 10 eguneko bidaia egingo du Senegalera (Afrika) iraila eta abendua bitartean.

Lehiaketaren bigarren edizioan GJH-Garapen Jasangarriko Helburuak landu ziren *Escape Room* baten bidez, eta Getxoko taldea izan zen irabazlea, Mexikoko IATA Bootcamp kanpamenduan parte hartzeko aukera izan zuena. Aurtengo edizioak BBK Kuna-ren babes du: GJHen Etxea, Bizkaiko Foru Aldundia eta hainbat udal.

### Faseak

**1. fasea: herrietako ekitaldiak.** Maiatzaren 29ra arte hainbat hiri zeharkatuko dira, *Deabruaren Jokoak* ekimenarekin. Getxora maiatzaren 29an, igandea, iritsiko da, baina hiru laguneko taldeetan izena emateko [www.googaz.eus](http://www.googaz.eus) web orria erabil daiteke. Aurrerago, jolasak zer agertokitan egingo diren adieraziko da.

**2. fasea: lurraldeetako kopak.** Herri bakoitzeko talde irabaz-



leek lurraldeko kopan parte hartzeko aukera izango dute. Horrela, ekaineko goiz batean, lehenengo fasean identifikatutako emantzipazio-arazoei irtenbideak bilatuko dizkiete, hainbat proiektu garatuz.

**3. fasea: bizi-esperientzia.** Talde irabazleak 10 eguneko bidaia egingo du, iraila eta abendua bitartean, Senegalera (Afrika) eta bertako gazte taldeekin gaitasun ezberdinak garatuko dituzte *Africa Basque Challenge* programaren bitartez.

### Gaia

GOOGAZ ekimenaren edizio honek euskal kultura eta tradizioei egiten die keinu. *Deabru jokoak* euskal mitologian oinarrituta daude. Anbotoko Mariren elezaharrak dioenez, familia batek ezin zuen ondorengorik izan eta deabruak alaba bat izateko baimena eman zien. Baldintza bakarra

jarri zien: alabak 20 urte betetakoan, berarekin eramango zuela betiko. Hala ere, bikoiteak aurrera egitea eta alaba bat izatea erabaki zuen. Marik 20 urte bete baino lehen, kristalezko kaxa batean sartu zuten deabruarengandik babesteko. Hala ere, bere urtebetetze egunean deabrua agertu zen, Mari kaxatik atera eta Anbotora eraman zuen betiko.

Googazek adierazi duenez, “gazteok gure familiaren babespean gaude, kristalezko kutxa batean sartuta. Urrats bat eman arte, kutxatik irten, emantzipatu eta geure bidea egiten hasiko gara”.

Hain zuzen ere, Gonzalo Ayo Gazteria Zerbitzuko zinegotzi arduradunak azaldu duenez, “ekimen honen bidez, getxotar gazteak emantzipatzeko eta helduen munduan sartzeko urratsak ematen has daitezten eta errealitate berri horrekin ohitu daitezten nahi dugu, jarduera dibertigarri eta entretengarrien bidez. Gazteek bere gain hartzea, bakarrik hegan egitea eta berme guztiakin egitea sustatzen jarraitu behar dugu. Horretarako, garrantzitsua da prozesu hori ahalik eta ondoen gauzatzen lagunduko duten baliabideak, eza-gutzak eta tresnak ematea”.

Deabru Jokoetan jolasteko, gazteek taldeka sartu behar dute kaxa handi batean, non haurtzaroko jolas tradizionalak aurkituko dituzten. Ekitaldiak irauten duen bitartean, gainerako taldeen aurka lehiatuko dira. Ateratzeko gai izango zarete?

## Apirilaren 26ra arte luzatuko da eta aurten hainbat berrikuntza izango ditu programak

## Zabalik dago 2022ko Gazte Auzolandegietan aurrez izena emateko epea

Apirilaren 26ra arte irekita egongo da 2022ko Auzolandegietan izena emateko epea, aurten ere Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak antolatutako Gazte Boluntarioen Auzolandegiak.

Aurten 295 plaza eskainiko dira 12 auzolandegitan, eta indartsu itzuliko dira nazioarteko helmugetara.

Aurtengo nobedadeak hurrengoak dira: adin-tartea handitu egin da (14-17 urte) Gorliz eta Arraia-Maeztu auzolandegietan; boluntarioen auzolandegi bat egongo da Euroeskualdearen esparruan (Nafarroako eta Akitania Berriko 14-17 urteko gazteekin) eta beste bat, Menorcan, dibertsitate funtzionala duten gazteentzako.

Izena [www.gazteukera.euskadi.eus](http://www.gazteukera.euskadi.eus) webgunean eman behar da (auzolandegia maiatzaren 2tik aurrera aukeratu ahal izango da). Beharrezkoa da identifikazio elektronikoko bitarteko bat aurre-izena emateko eta auzolandegiko hautaketa-prozesu osoa egiteko. BakQ txartela lortzea gomendatzen da.

Informazio guztia, eguneratuta: <https://www.gazteukera.euskadi.eus/auzolandegiak/inicio/>

